

## MOTZETIK

*Esnatu zenean, sakon bartu zuen arnasa:  
ez zegoen dinosaurioaren arrastorik ere.*

Mendigoria

### ERRUKIRIK EZ

Labana sartu eta zatika ebakitzeko gogoia eman zidan. Ez nion errukirik agertu. Eta labana sartzen nion aldiro negargura areagotzen zitzaidan. Negarrez blai amaitu nuen, baina ez nuen barrena hustutzerik lortu. Negar egin nuen esan gabe utzitako hitzengatik, eman gabeko musuengatik, ikusi gabeko tokiengatik, begirada alboratutako uneengatik, idatzi gabeko ipuinengatik. “Bizitza bezalakoa zara” esan nion azken bider labana sartzean, “pixkanaka erakutsi didazu barnea eta negar egin arazi didazu”. Ez nion errukirik agertu, eta, harrezkero, ezin izan dut beste kipularik *julianan* ebaki.

## ZALANTZA (I)

Ingudea, aingura eta beruna bezalako hitzak ere haizeak eramaten ote ditu?

## BIZILAGUNA

Aste honetan hasi da dena. Liburu bateko kontsonanteen artean ezkutatuta nebilela izan zen atea. Auskalo zenbatgarraren txirrinarekin ohartu nintzen. Maritxu zen, bizilaguna, eta galtzerdi pareka ekarri zidan. Eskerrak eman nizkion, despistatua bainaiz arropa eskegitzerakoan.

Asteartean, kamiseta zuri pare bat ekarri zidan eta, lotsaturik, eskerrak eman nizkion osterara.

Asteazkenean, ordea, hiru kantzontzilo ekarri zizkidan Maritxuk. Non ote dut nik burua arropa eskegitzerakoan!

Ostegun goizean praka batzuk ekarri zizkidan, eta arratsaldean alkandora bat. Iluntzean, zapatak ekarri zizkidanean, harritu egin nintzen: nireak baino bi zenbaki handiagoak ziren. Eta aste guztian garbigailurik ez dudala jarri oroitu nuen.

Atzotik, ordea, atea ireki nahi ezta nabil. Zirrikitutik begiratzeko dut eta ez diodala irekiko esaten diot nire buruari. Maritxu da, bizilaguna, eta besotik oratuta dauka senarra.

## IPUINETAN BEZALA

Orain hilabete deitu nion. Kostata, baina erabakia hartu eta telefonoz deitu nion. Dena amaitu zela esan nahi nion, ahaztu nuela, nire bizitzan lekurik ez zuela eta, zauria mingostuz, ipuin bat idatzi dudala esan nahi nion, bera dela protagonista, baina hil egiten dela eta ustel usaina zabaltzen duela etxean barrena.

Baina ez zidan telefonorik hartu. Sorosleek diotenez, telefonoa hartzera zihoala edo, laban egin eta sarrerako apalaren er-

## MOTZETIK

tza jo zuen buruarekin. Ustel usaina omen zegoen zabaldua etxean barrena.

## HITZEKO GIZONA

Hitzeko gizona zen. Mundu guztiak irakur zezakeen.

## SAGHARRA

Sagarrari haginkada eman nionean agertu zen, lotsagabe. Begira geratu nintzaion. “Sagar honi ere harra sartu zaion” esan zion aitak amari, goizean, anaiari buruz ari zirela. Harrak aho beltza ireki zuen, anaiak bezala, ezin egona agertu zuen, anaiaren antzera, burua tente jaso zuen, harro, anaiaren gisan. Azkazalen artean lehertu nuen. Belarriak tente, anaiaren garra-siaren zain geratu nintzen.

Hitz bi

Hitz bitan esan nahi zuena esateko bi hitz besterik ez zituen erabili.

## MIKELJALEA

Sekula horrelakorik! Basoan barrena ibili, errekatxoak zeharkatu, sastrakak garbitu eta, halako batean, soilgune batera irten ziren. Txorien txioa, haizearen firfira, leku aproposagorik! Ezpainak elkartu zituzten, sutsu, bero, heze.

Mikeljalea zain zegoen, ordea. Irribarrea zerion ezpainetan behera. Hurbildu eta Mikel jan zuen.

## SOCRATES

Socratesek idatzitako lan guztia irakurri zuela esan zuen, lotsatu gabe.

## ASKATASUNA

Erosi nindueanean, zalantzak bete zizkidan brankiak. Lasaitu egin nintzen, ordea, etxera heltzean. Arrain-leku handi batean utzi ninduen: hondoratutako txalupa, puxpuluka zebilen ur garbitzailea, benetakoak ziruditen plastikozko landareak... detetik neukan bertan. Gainera, goizeko zortzietarako eta iluntzeko bederatziak aldera eskua urreratzen zuen uretara, bitaminak eta guzti, jatekoa botatzeko. Ohitu egin nintzen lasaitasunera. Eta halako batean, non entzuten diodan libre utzi nahi nauela, bera ez dela inor arrain bat preso edukitzeko, nire zorriona askatasunean dagoela. Ez nion ezer esan, atzera egingo zuelako ustearekin.

Asteburu batez, plastikozko ontzi batean sartu eta hondartzan laga ninduen, askatasuna eman zidan. Bat-batean, zaka-tzak erretzen zizkidan zeozer sentitu nuen. Errekakoa izan ni!

## MUTUAREN LEMA

Isiltasun batek mila hitzek baino gehiago adierazten du.

## IPUIN OSOA

Bai, printze urdinarena ez da gaur goizeko ipuina. Entzuna dugu nola printze urdinak printzesari musu eman zion eta igel bihurtu zen. Bai, hori badakigu, baina andereñoak ez digu gehiago kontatu eta nik arrebaren naturako liburuan begiratu dut. Orain badakit zer gertatu zitzaion printzeari, eta badakit zergatik ez digun andereñoak kontatu. Printzea arnasestuka hasi zen, ezinean, eta itota hil zen. Arrebaren liburuan dionez, gizakiok ez dakigu brankiarik erabiltzen.

## ZALANTZA (II)

Emandako hitza jateak elikatzen ote du?

## BIDE BERRIA

Amaitu egin nahi nuen. Ez nuen ezertarako ilusiorik, gogorik, irrikarik. Larrugorrian jarri, zubiaren pretilera igo eta besoak zabaldu nituen, behera begiratzeko beldurrez. Halaxe egon nintzen une batez, ausardia bila. Begiak ireki nituenean, ezkereskumara, dozenaren bat lagun ikusi nituen, biluzik ere, beheara begira. Garunaren trapukeria iritzi nion begiak itxi eta ilunera bueltatzen nintzen bitartean. Halako batean, txalo zaparrada entzun nuen. Begiak ireki eta ehunaka lagun ikusi nituen nire alboan, biluzik denak.

Hurrengo egunean, gure argazkia zetorren egunkarietan, ehunaka lagun biluzi, artea ulertzeko bide berria ireki nuela eta. Dei zaparrada jaso nuen egun haietan, zorion zaparrada, galdera zaparrada. Ezer ulertu gabe, ezertarako ilusiorik, gogorik, irrikarik gabe jarraitu nuen, gerrikoa praktetatik kentzea otu zitzaidan unera arte.

## HITZ-LAPIKOA

Haren hitzak bi kirtenekoak ziren. Alde batetik edo bestetik har zitezkeen.

## LOROA

Ezer berririk ez dut esango nire loroak hitz egiten dakiela esaten badut. Baina Txioak, hala izena du nire loroak, irakurtzen ere badaki. Liburua kaiola alboko atrilean utzi eta sofan esertzen naiz afalostean. Durangoko nobedadeak irakurri dizkit azken asteotan.

## OSASUNA

Gaizki ibili naiz egun hauetan. Nire osasuna zalantzan jarri dut neronek, baina ez naiz ausartu inori ezer aitatzten. Leihora irten eta izutu egin naiz: Kapitain pilotu ikusi dut kalean, albo-

an Pernando amezketarra duela; atzerago Txanagorritxo gonamotz bat sokasaltoan, Tartalo begira duela; geroxeago, berriz, Pirritx eta Porrotzek txisa egin dute nire etxe aurreko loratoki-ko zuhaitz baten babesean.

Ez naiz ausartu inori ezer aitatzen, eta eskerrak ! Pilularik gehiago ez hartzea erabaki dut bat-batean, aluzinogenoek txar-to egiten didate.

Irribarrea egin dut berehala, Olentzero urdanga titibistera baten besotik oratuta ikusi dudanean. Pilula bat hartu dut oraindik inãauterietan gaudela ahazteko.

#### BARNEAN

“Zure barnean arakutzen ikasi behar duzu” esan zidan psikologoak. Orain, ordea, ez dakit irteten.

#### IKUSIKO NAUELAKOAN

Mugikor berria oparitu didate Jaunartze egunean, baina ezin izan dut. Goizean, eguerdian, arratsaldean eta iluntzean deitu diot, baina inork ez du telefonorik hartzen. Zalantza sortu zait horregatik. Izan, bada? Asmakuntzaren bat ote da? Nik, badaezpada, erreztatzen jarraitzen dut, telefonoz hitz egiterik ez badut izan ere, ikusiko nauelakoan; ez dut txokolatarik lapurtu Eroskin, ez diot *dodotisa* ezkutatu aitonari eta ez diot maite dudala esan nire lagunaren amari.

#### OILASKOA

Oilaskoari oilaki-ipurdia ateratzen zitzaion. Kilo eta erdi inguru pisatuko zuen eta otzana zen, oso otzana. Oilaki-ipurdia ateratzen zitzaion hozkailuko atea irekitzen genuen bakoitzean. Xerra eta solomiloaren alboan pasatu zuen aste-burua. Denok maite genuen oilaskoa. Amonak barrirudia egiten zion, edozein aitzakiaz, hozkailuko atea ireki eta be-

## MOTZETIK

giratzen zionean. Nire amak izterra igurzten zion, xerren aitzakian. Etxekoa bihurtu zitzaigun oilaskoa. Jan genuen egunetik aurrera, ordea, gauzak aldatu egin ziren gure etxean. Amak edanari eman zion, arrega nota txarrak ateratzen hasi zen, aitak madarikatu egin zituen munduko oilaskoak, eta niri oilaki-ipurdia ateratzen zait oilaskoari buruz idazten dudana honetan.

## O.A. / L.A.

Orainaldian hitz egiten hasi zen, baina luzatu egin zen, eta amaitu zuenerako lehenaldi bihurtu ziren harenak.

## MIRARIA

Medikuek ezin izan dute zergatia igarri. Errezatzen ari zen, egunero bezala, Santa Remedios kapilako santokristoaren aurrean. Ahots goraz ari omen zen, denek entzuteko moduan. “Jauna, ken iezadazu soberan dudana eta emaidazu behar dudana”. Miraria izan zela diote ikusi zutenek, eta esplikaziorik asmatu ezinda dabilta medikuak. Kapilatik mutu irten zen eta hitzik ezin eginda jarraitzen du gizajoak.

## HAMAIKA

Hamaika eta hamaika hitz berdinak dira. Baina zenbat hamaika behar diren hamaika izateko!

## ELIZAKO ATEAN (I)

Giltzak galdu dira, balio handiko giltzak. Orain ia hogeimende, Erromako inperioan San Pedroren galdu ziren giltzok. Erregutzen da, aurkitzen dituenak ekar ditzala parrokiara, lehenbailehen Erromara itzultzeko. Ia hogeimende dira Zeruetako atea ezin irekita dabilzala.

ELIZAKO ATEAN (II)

Lurra, koipea, tinta? Lekaimeek egindako xaboi berria: *Poncio Pilatos*. Eskatu sakristian.

ASPALDIAN IKUSI GABE

Aspaldian ikusi gabe neukan, baina ez da asko aldatu. Elkarrekin ibili ginen hiru urtez, bizitzaren bidegurutzean bakoi-tzak bide bat hartu genuen arte. Orduan bezain polita dago, agian hilagoa du begirada, eroriagoa. Bihotzak taupada biziak jo dizkit ikusi dudanean, urduritu egin nau eta burua galdu arazi. Kostatu egin zaigu txapa moztea. Istripua gogorra izan da eta, dirudienez, sufritu gabe joan da.

*Joxemari Urteaga*